

## «Unibertsitateak jakintza gizartera zabaltzeko eginkizuna ere badu»

Ikastaroak ekainaren 20ean hasi baziren ere, atzo izan zen irekiera ofiziala Donostiako Miramar Jauregian, eta han izan ziren Jaurilaritzako lehendakaria eta Hezkuntza sailburu berria, besteak beste

AGURTZANE SOLABERRIETA - DONOSTIA

Unibertsitateak goi mailako profesionalak hezi eta, ikerkuntzaren bitartez, jakintza sortzeaz gainera, hirugarren eginkizun bat ere baduela uste du Juan Ignazio Perez Iglesias EHUko errektoreak: «Jakintza gizartera hedatzea edo zabaltzea, ahalik eta herritar gehienengana iritsi dadin». Zentzu horretan, EHUko Udako Ikastaroen garrantzia nabarmendu nahi izan zuen, ikastaro asko eta asko herritar guztiarentzat baitaude bideratuta. Hain zuzen, atzo egin zuten ikastaro horien irekiera ofiziala Donostiako Miramar Jauregian, Juan Jose Ibarretxe Eusko Jaurilaritzako lehendakaria buru zela. Han izan zen, Tontxu Campos Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza sailburu berria ere. Bere lehen agerraldi publikoa izan zen.

Perez Iglesiasek bere hitzaldian nabarmendu zuenez, unibertsitateak zabal dezakeen jakintzak berebiziko garrantzia du gaur egun, «eta are handiagoa izango du etorkizunean». Azken batean, bere esanetan, jakintza hori laguntza handikoa gerta daiteke herritarrek hartu behar dituzten erabakiak harterako orduan edota eztabaida publikoetan. Izan ere, Iglesiasen hitzetan, eztabaida asko zorrotasunik eta irizpide propiorik gabe egiten dira. «Unibertsitateak herritarrei euren irizpideak eraikitzen lagundu behar die. Izan ere, ezagutzak pertsona libre egiteaz gainera eta mundua hobeto ulertzen laguntzeaz gain, gaurkotasuneko gizarte edo politikako eztabaidak ezagutzarekin lantzeko aukera ematen digu». Horrek guztiak bizi ditugun gatazkak konpontzeko erraztasunak emango lituzkeela nabarmendu zuen: «Geure irizpidea ongi oinarrituta badago, errazago onartuko dugu besteak duen arrazoiaren zatia eta horrela errazago sor daiteke elkarren arteko adostasuna».

Juan Jose Ibarretxe Eusko Jaurilaritzako lehendakariak EHUko errektorearen mezuari heldu nahi izan zion bere hitzaldian. Hain zuzen, Ibarretxeren ustez, zentzuzko gizarte eztabaida egiteko, unibertsitatea gizarte eragile garrantzitsua da. «Aukeraz beteta dagoen egoera bizi dugu eta aprobatxatu egin behar dugu», azaldu zuen. Horregatik, egoera horretan unibertsitateak

berebiziko garrantzia duela irizti zion: «Unibertsitatearen helburu izan behar du eztabaidak aurrera eramaten laguntzea eta kasuan kasuko konponbideak bilatzen jarraitzea».

### Konfiantza osoa

Juan Jose Ibarretxek Euskal Herriko Unibertsitateari eta errektoretza taldeari Eusko Jaurilaritzaren babes osoa erakutsi nahi izan zion eta gobernuaren konfiantza osoa duela azaldu zion Juan Ignazio Perez Iglesias errektoreari. Hurrengo urteetan uni-

bertsitateak erronka handiak dituela aipatu zuen —besteak beste, Europako unibertsitate sistema sartzeko erronka— eta zeregin horretan EHUko Jaurilaritza bidelagun izango duela ziurtatu zuen.

Halaber, Juan Jose Ibarretxek atzoko ekitaldia baliatu nahi izan zuen Tontxu Campos Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza sailburu berriari publikoki bere babesa emateko eta bere konfiantza erakusteko. Hain zuzen, Camposen lehen agerraldi publikoa izan zen atzoko EHUko uda ikastaroen irekiera ekitaldia.

Hitz onak izan zituen unibertsitatearentzat Camposek. Bere esanetan, EHUk dema eta erronka ugari ditu gaur egun: internazionalizazioa, Bologna prozesua, gizartearekiko harremanak, ikerketa... «Horiek guztiak unibertsitateak prestakuntzaren eta ikerketaren alorrean eginiko lanaren fruitu dira». Eta EHUk erronka horiek ondo gaindituko dituela ziur da Campos.

Hurrengo urteetarako Hezkuntza sailak dituen asmoen berri eman zuen Camposek: «EAEko Unibertsitate Sistemaren Legea garatu behar dugu».

### JUAN JOSE IBARRETXE

(Eusko Jaurilaritzako lehendakaria)

«Unibertsitateak Jaurilaritza bidelagun izango du, erronkak gainditzeko»

### TONTXU CAMPOS


(Jaurilaritzako Hezkuntza sailburua)

«Hurrengo urteetan Unibertsitate Sistemaren Legea garatu behar dugu»

### J. I. PEREZ IGLESIAS

(EHUko errektorea)

«Unibertsitateak herritarrei euren irizpideak eraikitzen lagundu behar die»



TONTXU CAMPOS, Juan Ignazio Perez Iglesias, Juan Jose Ibarretxe, Joxe Juan Gonzalez Txabarri eta Xabier Sala i Marti. ANDONI CANIZADA/AGAZ/EPRESS

## Sala i Marti: «Herrialde aberatsen laguntza sistemak porrot egin du»

**Ekonomista katalanak EHUko Udako Ikastaroen irekiera ekitaldiko hitzaldia eman zuen**

A.S. - DONOSTIA

Xabier Sala i Marti ekonomista katalan ezaguna izan zen atzo EHUko Udako Ikastaroen irekiera ekitaldian. *Globalizazioa eta pobrezia hirugarren munduan* goiburuko hitzaldia eman zuen

eta bere irudiko herrialde aberatsen laguntza sistemak «porrot» egin du. Sala i Marti Columbiako Ekonomiako Unibertsitateko (New York) irakaslea eta Umbele Fundazioa izeneko Gobernuaz Kanpoko Elkarte presidentea ere bada, beste hainbat karguren artean.

Bere esanetan, gaur egun instituzio eta erakunde ugari ari dira herrialde txiroak lagundu nahian. Horrek, ordea, pobrezia gainditzeko ez duela lagundu azaldu zuen, «asko eta asko norbere interesen arabera ari direlako». Horien artean honakoak aipatu zituen, besteak beste: Mun-

duko Bankua, Nazio Batuen Erakundea, herrialde aberatsen gobernuak eta globalizazioaren aurkako talde eta aktibistak.

Afrika jarri zuen adibidetzat. Haren esanetan, nazioarteko laguntza gaizki antolatuta dago eta sistema horrek porrot egin du; izan ere, Afrika egunetik egunera okerrago dago. Azaldu zuenez, gaur egun Afrikak hondamendi egoera bizi du, batez ere, hiesak eta malariak eraginda. Hainbat datu eman zituen: hegoaldean, hurren erdiak hiesarekin jaiotzen dira; iparraldeko urtean milioi bat pertsona hiltzen dira malariarengatik.

Mozambiken, esaterako, biztanleen %30ek hiesia dutela (18 milioitik 6 milioi herritarrek) azaldu zuen eta soilik 40 mediku daudela herrialde osoan. «Berraz, botikak balditza edota han ospitaleak eraikitzea ez da konponbidea, izan ere, mediku horiek ezin dituzte milioika pertsona zaindu». Zentzu horretan, herrialde aberatsen eredia han ezin dela ezarri ondorioztatu zuen, eta beste era batera bidertu behar dela laguntza. Esate baterako, hiesaren aurkako txertoak topatu behar direla dio. «Baina, txerto hori ezin diegu saldu, ez baitute dirurik erosteko. Guk jarri behar dugu dirua». Horretaz gainera, neurrien artean ere, prebentzioa aipatu zuen: «Hiesia ez harrapatzeko herritarren artean prebentzio lana egin behar da, baina hori ez da egiten».